

*2016ko ekainaren 13-17 .*

*Klima  
Aldaketaren  
inguruko  
Astea*

SARRERA



*13-17 de junio de 2016.*

*Semana  
En Clave  
de Cambio  
Climático*

INTRODUCCIÓN



Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra



El pasado 27 de abril el Gobierno de Navarra aprobó, **“la hoja de ruta de Cambio Climático de Navarra 2016”**. Un proceso de reflexión y debate tanto interno del Gobierno como de diálogo con la sociedad civil para pasar de la retórica a la acción frente al cambio climático. Un proceso que culminará en 2017 con la aprobación de la estrategia y medidas que permitan alcanzar los objetivos comprometidos internacionalmente por Navarra, reducción del 80% de las emisiones para el año 2050.

### **¿Cómo abordamos algo tan complejo y transversal?**

Cambio climático es sinónimo de complejidad, de transversalidad, de incertidumbre. Esto a menudo ha llevado a los gobiernos y a la propia sociedad civil a “desertar” de la acción frente al cambio climático. Aún reconociendo su urgencia, nos perdemos en la complejidad del abordaje, en la inmensidad del reto y en la presunción de la insignificancia de nuestra aportación.

**Pero no partimos de cero, hubo un plan de Acción por el Clima en 2009, la implantación de las energías renovables en nuestra comunidad, los diferentes planes y programas sectoriales han conseguido importantes reducciones de las emisiones. Sin embargo:**

- Son necesarias nuevas formas de abordaje y compromiso.
- Va a ser imprescindible el pacto social para superar la brecha existente entre lo que pensamos y la inacción.
- La Hoja de Ruta del cambio climático, no es un nuevo plan director, es el paraguas que debe acoger todos los planes y estrategias del Gobierno. Es “la sal” que no puede faltar en ninguno de los planes.



Para abordar este reto necesitaremos conocer los impactos del cambio climático en cada sector, experiencias de otros países y regiones, tanto en materia de mitigación como de adaptación.

No hay área de nuestra vida que sea ajena al cambio climático, todo queda condicionado por el clima, pero hay que estructurar el debate y por ello planteamos una semana de reflexión organizada de la siguiente manera:

### **Semana: en clave de cambio climático**

Vamos a empezar reflexionando a modo de tertulia, donde todas las opiniones son bienvenidas y necesarias. Donde se expresen los diferentes puntos de vista y estrategias. Luego habrá que cocinarlas

Esta semana será una primera toma de contacto con los agentes de los principales sectores implicados en las estrategias de mitigación y adaptación que permita reflexionar sobre:

- Origen y evolución de emisiones del sector.
- Principales estrategias de mitigación el sector.
- Vulnerabilidad y adaptación del sector al cambio climático.

En cada sesión contaremos con un par de expertos o expertas que orientarán el diálogo.

Las sesiones se celebrarán en el Archivo General de Navarra.

Comenzarán a las 12:00h y tendrán una duración aproximada de dos horas y media.

INICIO



PROGRAMA





**Sesión 13 de junio**  
**lunes:**

**“Estrategias regionales y locales de cambio climático”**

*Qué se aborda:*

la forma en que se han afrontado otras estrategias de cambio climático regionales y locales, cómo han elaborado los planes sectoriales, cómo han desarrollado la participación pública, su replicabilidad al contexto de Navarra.

*Dinamizan:*

**Salvador Samitier.** Director de la Oficina de Cambio Climático de Cataluña.

**Josu Benaito.** Director de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

**Sesión 14 de junio**  
**martes:**

**“Urbanismo, territorio y movilidad para el cuidado del clima”**

*Qué se aborda:*

Líneas de actuación necesarias para reducir las emisiones asociadas a la movilidad, estructura territorial, modos de transporte, dificultades y contradicciones en una población dispersa en el territorio.

Líneas de actuación para reducir las emisiones asociadas al sector residencial y servicios.

*Dinamizan:*

**Alfonso Sanz Alduán.** Urbanista, gea21 SL.

**Florencio Manteca.** Director del Departamento de Energética Edificatoria de CENER.

**Sesión 15 de junio**  
**miércoles:**

**“Oportunidades y retos climáticos en el ámbito rural”**

*Qué se aborda:*

Análisis de las emisiones del sector primario, un sector intensivo en emisiones. Estrategias de reducción de emisiones, ámbito agrícola, ganadero e industria agroalimentaria.

La gestión forestal hoy para el clima de mañana.

Estrategias de adaptación del turismo en el ámbito rural.

*Dinamizan:*

**Concha Salguero.** Responsable de políticas agrarias, ambientales y del medio rural de “Trashumancia y Naturaleza”.

**Alberto Lafarga.** Jefe de área de I+D y Experimentación de INTIA.

**Sesión 16 de junio**  
**jueves:**

**“Industria, competitividad e innovación: descarbonizar, sí o sí”**

*Qué se aborda:*

Estrategias de reducción de emisiones de sectores industriales regulados y no regulados.

Financiación de la innovación vinculada a cambio climático en el sector industrial.

*Dinamizan:*

**María Cornejo.** Investigadora de CIEMAT.

**Nancy Tarjenian.** Área de Estrategia Regional de SODENA.

**Sesión 17 de junio**  
**viernes:**

**“Nuestra salud, nuestra sociedad, nuestro entorno: más vale prevenir, estrategias de adaptación”**

*Qué se aborda:*

Vulnerabilidad de nuestra salud y nuestro entorno ante un clima en evolución.

Estrategias de adaptación en materia de salud y de biodiversidad.

*Dinamizan:*

**Julio Díaz Jiménez.** Jefe de Área del Departamento de Epidemiología y Bioestadística de la Escuela Nacional de Sanidad. Instituto de Salud Carlos III.

**Miguel Ángel de Zavala.** Coordinador Grupo de Ecología y Restauración Forestal de la Universidad de Alcalá.

INICIO



INSCRIPCIÓN





## ¿Cómo continuamos?

Los debates y las propuestas de esta semana se estructurarán y servirán de apoyo a la reflexión interna que cada departamento debe realizar para la incorporación de la perspectiva de cambio climático en sus planes y estrategias.

A partir de septiembre de 2016 tendrá lugar un proceso de participación pública que culminará en 2017 con la aprobación definitiva de la Hoja de Ruta de Cambio Climático de Navarra.

## INSCRIPCIÓN

Enviando un correo electrónico a: [participacion.ambiental@navarra.es](mailto:participacion.ambiental@navarra.es)

O en el teléfono **848 426 126 antes del 8 de junio** indicando:

**Apellidos / Nombre / Entidad / Correo electrónico**

**y solamente las sesiones a las que se desea acudir:**

- LUNES 13 DE JUNIO "Estrategias regionales y locales de cambio climático"
- MARTES 14 DE JUNIO "Urbanismo, territorio y movilidad para el cuidado del clima"
- MIÉRCOLES 15 DE JUNIO "Oportunidades y retos climáticos en el ámbito rural"
- JUEVES 16 DE JUNIO "Industria, competitividad e innovación: descarbonizar, sí o sí"
- VIERNES 17 DE JUNIO "Nuestra salud, nuestra sociedad, nuestro entorno: más vale prevenir, estrategias de adaptación"

**NOTA: El aforo está limitado a 30 plazas. Será necesaria confirmación de inscripción para acudir.**

INICIO





Joan den apirilaren 27an Nafarroako Gobernuak **“2016ko Nafarroaren Klima Aldaketaren bide orria”** onetsi zuen. Gogoeta eta eztabaida prozesu bat izan zen, bai Gobernuaren barrenean, bai gizarte zibilarekiko elkarrizketan, Klima Aldaketaren aurrean erretorika utzi eta ekintzara pasatzeko. Prozesuaren buruan, 2017an, Nafarroak bere egin dituen nazioarteko konpromisoak iristeko bide ematen duten estrategia eta neurriak onetsiko dira: 2050. urterako igorpenak % 80 batean murriztea.

### **Nola aurre egin hain korapilatua eta zeharkakoa den arazo honi?**

Klima Aldaketa esatea orobat da nola arazo korapilatua, zeharkakoa, lausoa esatea. Honek maiz asko bai gobernuak bai gizarte zibila bera amore ematera eraman ditu eta Klima Aldaketaren kontrako ekintza bertan behera uztera. Haren larritasuna aitortzen badugu ere, galtzen gara, hain da korapilatua nola ekin jakitea, hain da gaitza desafioa eta hain iruditzen zaigu geure ekarpena hutsala dela.

**Ez gara, ordea, zerotik abiatzen. 2009an Klimaren aldeko Ekintza Plan bat izan zen, gure komunitatean energia berriztagarriak ezartzen hasi ziren, hainbat plan eta programa sektorialek igorpenen murrizketa handixkoak lortu dituzte. Hala ere:**

- Arazoari ekin eta konpromisoak hartzeko modu berriak behar dira.
- Ezinbestekoa izanen da gizarte itun bat, pentsatzen dugunetik ekintzara dagoen jauzia gainditzeko.
- Klima Aldaketaren Bide Orria ez da beste plan zuzendari bat; Gobernuaren plan eta estrategia guztiak azpian bildu behar dituen aterkia da. Plan horietan guztietan nahitaez egon beharreko “gatza” da.



Erronka honi aurre egiteko, jakin beharko dugu aurrena Klima Aldaketak zer eragin duen sektore bakoitzean, zer esperientzia izan diren beste herri nahiz eskualdeetan, bai moteltzeari bai moldatzeari dagokionez.

Gure bizitzaren arlo guztiak daude Klima Aldaketaren eraginpean, klimak edozer gauza baldintzatzen baitu, baina eztabaida egituratu behar da eta, hortaz, gogoetarako aste bat antolatu, ondoren zehazten den moduan:

### **Astea: Klima Aldaketaren inguruan**

Hasteko, tertulia moduan hasiko gara gogoetan, iritzi guztiak ongi etorriak ete beharrezkoak direlarik. Ikuspuntu eta estrategia desberdin guztiak entzutekoak izanen dira; ondoren, berriz, “maniatu” egin beharko dira.

Aste hau lehenbiziko kontaktu-hartze bat izanen da moteltze eta moldatze estrategietan ari diren sektore nagusien eragileekin, honako gaien inguruan gogoeta egin ahal izateko:

- Sektoreko igorpenen jatorria eta bilakaera.
- Sektorean diren moteltze estrategia nagusiak.
- Sektorea noraino den Klima Aldaketaren aurrean minbera eta moldakorra.

Saio bakoitzean aditu pare bat izanen ditugu lagun, elkarrizketa bideratzeko.

Saioak Nafarroako Artxibo nagusian egingen dira.

Eguerdiko 12:00etan hasi eta bi ordu eta erdi inguru iraunen dute.

**HASIERA**



**EGITARAUA**





**Ekainaren 13,  
asteleheneko saioa**

**“Klima Aldaketaren aurreko estrategia eskualdekoak eta tokian tokikoak”**

*Zer jorratuko den:*

Nola aurre egin zaien bestetan Klima Aldaketaren aurreko eskualdeko nahiz tokian tokiko estrategiei, nola eratu diren plan sektorialak, nola garatu duten beren parte-hartze publikoa, noraino errepika daitezkeen horiek denak Nafarroan.

*Dinamizatzaileak:*

**Salvador Samitier.**

Kataluniako Klima Aldaketarako Bulegoaren zuzendaria.

**Josu Benaito:** Donostiako Udalaren Ingurune zuzendari.

**Ekainaren 14,  
astearteko saioa**

**“Hirigintza, lurraldea eta mugigarritasuna klima zaintzeko.”**

*Zer jorratuko den:*

Zer ekintza lerro behar diren mugigarritasunaren, lurralde egituraren, garraio moduen ondorio diren igorpenak murrizteko, lurraldean sakabanaturik dagoen biztanleria batean sortzen diren zailtasunak eta kontraesanak.

Zer ekintza lerro behar diren etxebizitza eta zerbitzuen sektoreen ondorio diren igorpenak murrizteko.

*Dinamizatzaileak:*

**Alfonso Sanz Alduán.**

Hirigilea, gea21 SL.

**Florencio Manteca.**

CENERko Eraikinen Energetika Sailaren zuzendaria.

**Ekainaren 15,  
asteazkeneko saioa**

**“Klima Aldaketaren aurreko aukerak eta erronkak landa giroan”**

*Zer jorratuko den:*

Lehen sektorearen igorpenen azterketa, igorpen askoko sektorea baita. Zer estrategia erabili igorpenak nekazaritzan, abeltzaintzan eta nekazaritzako elikaduraren industrian murrizteko.

Gaurko baso kudeaketa biharko klima baten alde.

Turismoa landa giroan moldatzeko estrategiak.

*Dinamizatzaileak:*

**Concha Salguero.**

“Trashumancia y Naturaleza”ko nekazaritza, ingurune eta landa giroko politiken arduraduna.

**Alberto Lafarga.**

INTIAko I+D eta esperimentazioaren burua.

**Ekainaren 16,  
osteguneko saioa:**

**“Industria, lehiakortasuna eta berrikuntza; ikatza baztertu behar nahi ala nahi ez”**

*Zer jorratuko den:*

Industria sektore arautuetako nahiz aratu gabeetako igorpenak murrizteko estrategiak.

Nola finantzatu Klima Aldaketari lotutako berrikuntza, industriaren sektorean.

*Dinamizatzaileak:*

**María Cornejo.**

ICIEMATEko ikertzailea.

**Nancy Tarjenian.**

SODENAKo Eskualde Estrategiarako Arloa.

**Ekainaren 17,  
ostiraleko saioa:**

**“Gure osasuna, gure gizartea, gure ingurua: hobe aurrea hartzea, moldatze estrategiak”**

*Zer jorratuko den:*

Zeinen minberak diren gure osasuna eta gure ingurua etengabe bilakatzen ari den klima baten aurrean.

Osasun eta biodibertsitate gaietan moldatzeko estrategiak.

*Dinamizatzaileak:*

**Julio Díaz Jiménez.**

Osasun Eskola Nazionaleko Epidemiologia eta Bioestatistika Departamentuko arlo-burua. Carlos III Osasun Institutua.

**Miguel Ángel de Zavala.**

Alcalako Unibertsitatearen Ekologia eta Baso Lehengoratzeko Taldeko koordinatzailea.

HASIERA



IZENA EMATEKO





## ***Nola jarrai?***

Aste honetako eztabaidak eta proposamenak egituratzaile eta lagungarri izanen dira departamentu bakoitzak egin behar duen barne gogoetarako, zeinek bere estrategia planetan Klima Aldaketaren ikuspegia txertatzeko.

2016ko irailetik aurrera parte-hartze publikoko prozesu bat egingen da eta 2017an bukatuko, Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria behin betiko onesten denean.

## ***IZENA EMATEKO***

Ekainaren 8a baino lehen helbide elektroniko honetara idatzi: [ingurune.partaidetza@navarra.es](mailto:ingurune.partaidetza@navarra.es)

edo **848 426 126** telefonora deitu, datu hauek emateko:

**DEITURAK / IZENA / ERAKUNDEA / HELBIDE ELEKTRONIKOA**

**Bilkura honetan parte hartu nahi dut (markatu bakarrik zein saiotan parte hartu nahi duzun):**

- EKAINAREN 13, ASTELEHENEKO SAIOA, "Klima Aldaketaren aurreko estrategia eskualdekoak eta tokian tokikoak".
- EKAINAREN 14, ASTEARTEKO SAIOA "Hirigintza, lurraldea eta mugigarritasuna klima zaintzeko"
- EKAINAREN 15, ASTEAZKENEKO SAIOA "Klima Aldaketaren aurreko aukerak eta erronkak landa giroan"
- JEKAINAREN 16, OSTEGUNEKO SAIOA "Industria, lehiakortasuna eta berrikuntza: ikatza baztertu behar nahi ala nahi ez"
- EKAINAREN 17, OSTIRALEKO SAIOA "Gure osasuna, gure gizartea, gure ingurua: hobe aurrea hartzea, moldatze estrategiak"

***OHARRA: Gehienez 30 pertsonarendako tokia dago. Izena emanda egotea nahitaezkoa da saioetara etorri ahal izateko.***

**HASIERA**

